



LOPDGDDaren tratamenduari buruz informatzeko zirkularra

Nor da datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna?

BILBAO-RIA 2000, S.A. da Interesatuaren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna, eta jakinarazten dizu datu horiek tratatuko direla apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (GDPR) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (LOPDGDD) ezarritakoarekin bat etorritik, eta, hortaz, tratamenduari buruzko informazio hau jakinarazten dizugu:

Tratamenduaren helburuak, zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Gure barneko informazio-sistema edo kanal etikoa modu egokian kudeatzeko, beraren bidez jakinarazitako irregulartasunak tramitatuz eta ikerketa bat abiatzea egokia ote den erabakiz, balizko delituak detektatzeko eta BILBAO-Ría 2000, S.A.ri edozein motatako erantzukizunaren ezarpena prebenitzeko, eta baita erakundearen barne- zein kanpo-araudiaren aurkako jokabide oro eragozteko ere.

Tratamenduaren legitimazioa, zergatik tratatu ditzakegu zure datu pertsonalak?

Arau-hausteez informatzen duten pertsonen babesa erregulatzeari eta ustelkeriaren aurka borrokatzeari buruzko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 10. eta 13. artikuluetan ezarritako lege-betebeharraren arabera, derrigorrezkoa delako barneko informazio-sistema horiek izatea (GDPRaren 6.1.c artikulua).

Zure identitatea gordetzea:

2/2023 Legearen 31.1. artikuluekin bat etorritik, jakinarazten dizugu zure identitatea gordeta egongo dela kasu guztietan, eta ez zaiela jakinaraziko kontatutako gertaeren eragileei, ezta hirugarrenei ere.

Datuak kontserbatzeko irizpideak, zenbat denboraz gordeko ditugu zure datu pertsonalak?

Zure datuak gehienez hiru hilabetez gordeko ditugu, irregulartasunaren jakinarazpenetik kontatuta, gertaerak frogatu ez badira eta, betiere, ez badira beharrezkoak beste helburu batzuetarako edo deituen prebentzioaren nahitaezko kontrol eta gainbegiratzearen frogatze-ondorioetarako, Gertaerak frogatu egin badira, behar beste zantzuekin, datuak gordeko dira erakundeak bere eskubideak justizia-auzitegien aurrean erabiltzeko behar duen bezainbeste denboraz, eta behar hori bukatzen denean suntsitu egingo dira, datuen anonimazioa edo haien osoko suntsipena bermatzeko beharrezkoak diren segurtasun-neurri egokiekin.

Datuen jakinarazpena, nori ematen dizkiogu zure datu pertsonalak?

Legeak besterik ezarri ezean, zure datuak hartzaile-kategoria hauei soilik jakinaraziko zaizkie:

- Epaitegiak eta Auzitegiak, eta baita gatazkak ebazteko egon litezkeen organoei ere.
- Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoak.
- Notarioak eta erregistratzaileak.

Kontratatu dizkiegun zerbitzuak bete ahal izateko zure datu pertsonalak behar dituzten hornitzaileekin, edo gure zerbitzu elektronikoen funtzionamenduagatik beragatik (webgunea eta posta elektronikoak) zure datu pertsonal jakin batzuk eskuratu ditzaketenekin, konfidentzialtasun-kontratuak eta datu pertsonalak tratatzeko beharrezkoa den eskaria sinatuta ditugu, zure pribatutasuna babesteko araudiak ezartzen duenaren arabera (GDPRaren 28.3. artikulua).

Erabili ditzakezun eskubideak, zein dira zure eskubideak, GDPRaren arabera?

- Datuak ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien eramangarritasunerako, eta haien tratamendua mugatzeko edo haren aurka agertzeko.
- Erreklamazio bat Kontrol-agintaritzaren aurrean (www.aepd.es) aurkezteko eskubidea, uste baldin baduzu tratamendua ez datorrela bat indarrean dagoen araudiarekin.

Zure eskubideak erabiltzeko kontaktu-datuak: BILBAO-Ría 2000, S.A.. Jose M^a Olabarri, 4. Solairua E - 48001 Bilbo.